

KULTUR EKITALDIEN PROGRAMAZIOAREN DIAGNOSTIKOA -DINAMIZAZIORAKO GIDA ETA ONDORIOAK-

AURKIBIDEA

- Sarrera.....2.orria
- Definizioak.....2.orria
- Lan-saiorako proposamena.....2.orria
- 2 urtetako kultur ekitaldien sintesia.....3.orria
- Egun antolatzen denaren laburpena.....5.orria
- Hausnarketa sustatzeko galderak eta ONDORIOAK.....7.orria

SARRERA

Udalerriko kultur ekitaldien programazioaren inguruan hausnartzeko une egokia dela uste dugu. Noizean behin komenigarria izaten da geldialdi bat egin, atzera begiratu, eta egindakoaren balantzea egitea, zertan asmatu den, zertan ez, zerk funtzionatzen duen eta zerk ez begiratzea, eta zuzendu beharrekoak zuzenduta, eta mantendu beharrekoak mantenduta, etorkizuneko estrategiaren marrazkia egitea.

DEFINIZIOAK

Kultur ekitaldia da ARTEAren, kulturaren, sinesmenen edo balioen adarren batekin lotutako gertakaria.

Artea, oro har, helburu estetiko eta komunikatiboarekin egindako edozein jarduera edo produktu bezala ulertzen da, zeinaren bidez ideiak, emozioak eta, oro har, munduaren ikuskera adierazten diren, hainbat baliabideren bitartez, hala nola plastikoak, berbazkoak, soinudunak, gorputzekoak edo eta mistoak.

Artea 7 diziplina nagusitan banatzen da (ez dira bakarrak): pintura, eskultura, arkitektura, musika, arte eszenikoak, literatura eta zinema. Diziplina hauek mendeetan zehar eboluzionatu egin dute, eta eboluzionatzen jarraitzen dute, aldaketa kultural eta teknologikoetara egokituz.

LAN-SAIORAKO PROPOSAMENA

Iraupena: 90 minutu

Hausnarketako kideei bi urtetako kultur ekitaldien zerrendak helarazi zaizkie (2018 eta 2019 urteak), Udalak zein herriko beste eragile batzuk antolatutakoak, hilabetez-hilabete hurrenkeran.

METODOLOGIA:

- 15 min
 - 2 urtetako kultur ekitaldien diagnostikoaren aurkezpena eta sintesia partekatu. *(Jarraian jasota)*
 - Orain dagoenaren inguruko azalpena. *(Jarraian jasota)*
- 10 min
 - Hausnarketarako galderak eman eta bakarka denbora bat utzi, pentsatzeko eta erantzuteko.
- 40 min
 - 3-4 pertsonako taldeetan bakoitzaren erantzunak partekatu, bozeramaileak apunteak hartu.
- 20 min
 - Talde handian, bozeramaileek beraien taldeetako ondorioak partekatu, galderaz-galdera.

2 URTEAKO KULTUR EKITALDIEN SINTESIA

SARRERA

- Pandemia aurreko bi urteetako zerrenda da zuekin partekatu duguna, horiek direlako osatuen dauzkagun azkenak.
- Gaur egungo dinamikatik ez dira asko urruntzen. Nabarmentzekoak dira helduentzako zinea gutxiago programatzen dela, “Ostegunetako pelikulak” zikloa ez delako antolatzen; bertsoaren bueltakoak gehiago direla gaur egun, BertSora taldea sortu izanaren ondorio eta arte bisual edo plastikoen arloan ugaritu egin direla ekitaldiak “Oreka Art” galeriari esker.
- Ekitaldirik gehienak hor daude. Guztiak ez, antolatzen diren guztien konstantziarik ez dugu izaten-eta. Gaztetxekoak, esate baterako, falta dira.
- Jaiak izenburuarekin zerrendatu ditugun ekitaldi batzuk beren baitan ekitaldi ezberdinak dituzte, musikarekin lotutakoak gehienak, herriko edo auzoetako jaien kasua da hori. Horiek denak ez dira disziplinaka bereiztu.
- Zerrendan ez daude modu jarraian funtzionatzen duten kate kulturalaren lehen kate-begi edo faseko; alegia, “formazioa” edo “transmisioa” esaten zaion horretako kultur jarduerak, hala nola, batez ere haur eta gaztetxoekin lan egiten duten musika eskola, pintura eskola, euskal dantzen tailerra, dantza garaikideen tailerra, zirko tailerra, arte plastikoen tailerra eta bertso eskola; eta helduentzako dauden hari-lanen tailerra, sebillana tailerra edota saloi dantzen tailerra.

EKITALDI KOPURUA

- Bi urte horietan zerrendatu dira 178 ekitaldi.

EKITALDI MOTAK

- Diziplinaka horrela banatu dira:
 - Haurrentzako zinea: 13
 - Helduentzako zinea: 24
 - Dokumentalak: 9
 - Musika: 29
 - Bertsoa: 4
 - Jaiak: 24
 - Helduentzako antzerkia: 13
 - Haurrentzako antzerkia: 6 (5 eskola orduetan)
 - Pailazoak: 6
 - Magia: 2
 - Pintura: 8
 - Literatura: 12

- Argazkia: 10
- Dantza: 9

NORK ANTOLATU DITU ETA NOLA

- Udalak antolatu ditu 107 ekitaldi (%60) eta elkarteek 63 ekitaldi (%40).
- Udalak antolatutako ekitaldietatik 32 elkarlanean antolatu dira (%30) eta 75 bakarrik.
- Ekarteek antolatutako ekitaldietatik 21 elkarlanean antolatu dira (%33) eta 42 bakarrik.

PUBLIKOA

- Ekitaldien %18 haurrentzako ekitaldiak izan dira; % 52 gazte-helduentzat; %22 denentzat eta %2 baino gutxiago nerabeentzat.

HIZKUNTZA

- Berbazko ekitaldirik gehienak euskaraz antolatu dira, 55 euskaraz eta 29 gazteleraz. Euskaraz antolatutako 55 horietatik 29 haurrentzako ekitaldiak izan dira. Haurrentzako ekitaldi guztiak euskaraz antolatu dira. Helduentzako antolatu direnak 26 euskaraz eta 29 gazteleraz (Zineak pisu handia dauka hor). Helduentzako 23 pelikulatik 3 bakarrik izan dira euskaraz. Antzerkiaren kasuan 5 gazteleraz eta 8 euskaraz.

EGUN ANTOLATZEN DENAREN LABURPENA

KULTUR EKIMENAK

Gaur egun

UDAZKENEKO EKIMENAK

- **IRAILA**
 - Dolmenen ibilbidea (Ibilaldiak)
 - Errekaldeko jaiak (Festa)
- **URRIA**
 - Kontrargi erakusketa (Argazkiak)
 - Udazkeneko antzerki zikloa (Antzerkia)
 - Haurren aurrean helduak heldu (Kantu jolasak, ipuinak, familia ekimenak)
- **AZAROA**
 - Gaztañerre (Festa eguna + asteko kultur ekitaldiak: bertsoa, musika...)
 - Blues Hotsak (Musika)
 - Argazki rallya (Argazkiak)

NEGUKO EKIMENAK

- **ABENDUA**
 - Kontrargi erakusketa (Argazkiak)
 - Musika Eskola kontzertua (musika)
 - Abesbatza Kontzertua (musika)
 - Gabonetako bertso saioa (musika)
 - Gabonetako ekitaldiak (haurrendako ikuskizunak, musika...)
- **URTARRILA**
 - Gabonetako ekitaldiak (haurrendako ikuskizunak, musika...)
- **OTSAILA**
 - Santa Eskea (Musika, bertsoa)
 - Aratosteak
 - Euskal Aratosteak (Herri proiektua)
 - Zapatua eta martitzena (festa)

UDABERRIKO EKIMENAK

- MARTXOA
 - Martxoaren 8ko ekitaldiak
 - Korrika kulturala
 - Musika eskolako kontzertuak
- APIRILA
 - Kontrargi erakusketa (Argazkiak)
 - Bertso Bazkaria
 - Udaberri kulturala
- MAIATZA
 - Udaberri kulturala

UDAKO EKIMENAK

- EKAINA
 - Euskal Jaia (Dantza)
 - Erromeria eguna (Festa)
 - Kontrargi erakusketa (Argazkiak)
 - Udate Gaba
 - Kontzertua musika eskola
- UZTAILA
 - Abesbatza kontzertua
 - Jaietako kartel lehiaketa
 - Santa Ana jaiak (Festa)
 - Jaietako bertso saioa
- ABUZTUA
 - Andramari Jaiak (Festa)

URTEAN ZEHARREKOA

- Irakurle Kluba (Literatura)
- Domekak Aterpean: Haurrentzako zinea (Azaroa-Martxoa) (Zinema)
- Erakusketak: Erakusketa gelan (pintura, argazkilaritza...)
- Erakusketak: Oreka Art (pintura, eskultura, collage, grabatua...)
- ...

HAUSNARKETA SUSTATZEKO GALDERAK ETA ONDORIOAK

**Hausnarketa honetan hamabost bat herritarrek parte hartu dute.*

- Zein da zerrenda erreparatzerakoan izan duzun lehen **sentipen edo sentsazioa**?
Kopuruaren aldetik nahikoa iruditu zaizu? Gehiegizkoa? Ala motz ikusi duzu?
Kalitateari dagokionean, oro har, zer inpresio?
 - Ekitaldi asko antolatzen dira, onak eta askotarikoak.
 - Antzerki eta zine emanaldi ezagunetara jende asko etortzen da, osterantzean gutxi. Komeniko litzateke asistentzia-datuak jasotzea.
 - Ekitaldietan antzerako jendea ibiltzen da, hainbatengana ez gara iristen.
 - Eragileek antolatzen dituzten ekitaldiak proportzioan asko dira eta kalitate onekoak; gainontzekoak tira (“De andar por casa”).
- **Adierazpen artistikoen** aldetik aniztasunik somatu duzu ala ez? Diziplinaren bat bota duzu faltan?
 - Antzerkiaren arloan, transmisioari edo formazioari dagokionean, hutsunea somatzen da (taldea, eskola...)
 - Dantza gutxi programatzen da.
 - Herriko kultur ondarearen transmisiorako ekitaldiak falta dira. Dolmenen ibilibidearen inguruko bisitak daude, baina gainontzean ezer gutxi (Arkitektura...).
 - Haur edo familiei zuzenduta apenas antolatzen da ezer.
 - Tailer/ikastaro eskaintza handitu beharko litzateke (Argazkilaritza, teknologia berriak, sukaldaritza, antzerkia...).
- **Urtean zeharreko ekintzen banaketa orekatua** ikusten duzu? Hilabeteren bat dago kargatuegi? Edo flojoegi?
 - Ez dago behar adina orekatua, eragileek antolatzen dituztelako asko eta bakoitzak bere erritmoa duelako, udalaren kontratazioek eman beharko liokete oreka hori.
 - Ekaina dago flojo.
 - Udazken-neguan barrurako ekitaldiak nagusitzen dira. Horrela behar du. udaberritik aurrera kalean programatu behar da gehiago.
 - Eguraldia eta momentuan egon daitekeen publikoa ere kontuan izan behar dira.

- **Udalak eta gainontzeko eragileen funtzio banaketa** zuzena da? Udalak protagonismo gehiegi hartzen du? Ala ez?
 - Funtzio banaketa zuzena da.
 - Sustatze lana egitea udalari dagokio eta koordinazioa eta orekak topatzea ere bai.
 - Saretzearen garrantzia aipatu da, eragileen artekoa eta udala zein eragileen artekoa.
- **Publikoari dagokionez, adin-tarte ezberdinak** kontuan izaten dira? Non ikusten dira hutsuneak?
 - 14-24 urtekoei begira ez da ekitaldirik programatzen.
 - 60 urtetik gorakoentzat, nagusientzat, gutxi programatzen da. (?)
 - Umeenutzako eskaintza opor sasoiari (Gabonetan) kontzentratzen da eta ostean ez dago ezer.
 - Etorकिनengana ez gara ailegatzeko, eta herrian geroz eta gehiago dira.
 - Pentsatu beharko genuke zein publiko nahi dugun erakarri (Adina, jatorria...) eta hortik abiatuta antolatu eta komunikatu.
 - Inguruko herrietako publikoa erakartzeko ahalegina egin beharko litzateke, oso ondo komunikatuta gaude-eta (Irratia, prentsa, kartelak...). Inguruan zer dagoen begiratu eta aurrea hartzeko ahalegina egin behar da, han ez dagoena programatu.
 - Komunikazioa findu egin behar da, askotan ez dakigu ekitaldia dagoenik ere, kartel gehiegi dago...
- **Genero** kontuak kontutan hartzen dira artistak kontratatu eta gaiak aukeratzeko orduan? Eta zer izan beharko genuke kontutan?
 - Ez daukagu balorazio egokia egiteko nahikoa datu.
 - Beti alerta egoeran egotea komeni da, ezin da despistatu, tendentzia desoreka baita..
 - Keinu batzuk egiten dira, kanpaina edo egun zehatzen bueltan, martxoaren 8a, blues hotsak... Sarri gertatzen da oso jende gutxi biltzea ekitaldi hauetako batzuetan.
 - Kontratuak egiterakoan, orain arte ez da nahikoa zaindu, kontzientzia falta izan da.
 - Kontuan izan behar da kontratatzen den horrek zein giro sortzen duen, zer transmititu nahi den, zein publiko ekarri nahi den.
 - Antolatzeko moduak aldatu egin behar dira, genero ikuspegia urte osoan behar da, ekitaldi hauek ezin dira mugatu martxoaren 8 edo azaroaren 25era.

- **Hizkuntzen tratamenduari** buruz zein iritzi duzu? Erantzuten dio herriko errealitateari?
 - Euskararen aldeko ahalegina egiten da, udalaren partetik, beharra dagoelako, herriko errealitateak eskatuko lukeena baino gehiago programatzen da euskaraz. Hirutik bi euskaraz izan behar dira. Aldi berean malgutasuna ere behar da.
 - Euskara/Gaztelera binomiotik haratago pentsatu behar dugu, errealitate linguistikoa zabala da eta jende hori nola erakarri pentsatu behar da. Berbarik gabeko ekitaldiak antolatzea da aukera bat.
- **Saretzeko** ahaleginik ikusten da? Zein ekimenetan bereziki? Eragile ezberdinen arteko elkarlanean oinarritutako ekintza kopurua nahikoa da ala sakondu egin beharko litzateke bide horretan?
 - Talde batzuk joera daukate elkarlanerako eta gustora hartzen dira horrelakoak.
 - Eragileen arteko elkarlanak publiko berriak sortzeko balio du.
 - Zeinengana ailegatu nahi dugunaren arabera, saretzeak beharko luke era batekoa edo bestelakoa.
 - Saretzeko aukera ugari egon daiteke (Blues Hotsak & Kontrargi / Abesbatza & Kontrargi...) Askotan akordatzea izaten da, edo burua horretan jartzea.
 - Horrelakoek lana eskatzen dute, koordinazioa, baina emaitza ederra izaten da eta merezi du.
- Kultur ekitaldiak **non antolatzen dira** bereziki? Gune edo espazioen bat sustatu beharko litzateke gehiago?
 - Ekitaldi gehienak oso zentratzen dira antzokira eta sarri geratzen da handiegi, barruegi.
 - Kanean gauza gehiago antolatu beharko lirateke,
 - Beste espazio batzuk esploratu daitezke: elizataria, galipota...
 - Gaztetxea (barra baten bueltako gauzak), kapilla (formatu txikiko gauzak), Sapako aterpe berria... gune ezin hobeak izan daitezke kultur ekitaldiak antolatzeko.